

ANIMALIEN EMOZIOAK IKERTUAK IZATEA MEREZIKO LUKETE

Gaiak Argitaletxea

Egilea: Ekain Mtz. Lizarduikoa

Arloa: Etologia

Webgunea: <http://www.gaiak.net>

SENTITZEN DUT, BERAZ, BANAIZ

Descartesen “pentsatzen dut, beraz, banaiz” esaldi ospetsua eraldatzen ari da emozioen psikoanalisten ikerketa dela bide, eta “sentitzen dut, beraz, banaiz” aforismoa ordezkatzeko hasi da. Animalien ezkutuko emozioak aztertzeko eman behar den lehen urratsa sentimenduen kontzientzia azaleratzen uztea da. Alabaina, gaur arte, oso gutxi azertu dira animalien emozioak psikologiaren eta psikiatriaren aldetik. Eta harritzekoa da jakin-min labur hori, animaliek emozioak sortu eta azaltzeko duten erraztasuna kontuan hartzen badugu.

Bere garaian, Charles Darwinek *Emozioen azalpena animaliangan eta gizakiengan* fama handiko liburua idatzi zuen. Bertan, txakur baten bizitza inkontzientea azaltzen saiatu zen. Zergatik ezin izango luke ehiza-txakur zahar batek gozatu bere bizitzan egindako irtenaldiak gogoratuz? galdetzen zion Darwinek bere buruari. Gogoratze hori ez ote da animalia berezko kontzientzia-era bat?

Libre jaioa izenburuko beste liburu ospetsuan, etologo famatu batek dioenez, lehoia ez da berez lehoi izango, ehizatze, lo egiteko, jateko eta larrua jotzeko libre ibiltzerik ez badu. Lehoiak bere harrapakina aukeratzeko, bere lurraz jabetzeko eta jaio den lurraldean, hau da, naturan, hiltzeko eskubidea izan beharko luke. Hortaz, gizakiok ditugun eskubide berberak izan beharko lituzke.

ANIMALIEN “GIZATASUNA”

Azkeneko garaietan onartzen hasia dago animaliek bizitza emozionala eta konplexua dutela, eta gai direla mina, maitasuna, errukia, altruismoa, etsipena eta nostalgia sentitzeko. Ezagarrak horiek direla medio, gizakiok begirune moralari zor diegula onartu behar izan dugu. Txinpantzeak bakardadea eta bizi- eta buru-larrimina sentitzeko gai badira, garbi dago torturatuak izango diren esperimenduetatik baztertu beharko genituzkeela, zientziaren izenean bada ere. Animalien “gizatasuna” planteatzeko eremu egokia izan liteke hori, eta baita haien eskubide etikoak defendatzeko ere.

Egunen batean, agian, animaliek sentimendu humanoideak maila neurologikoan badituztela aurkituko dugu. Orduan, animalia baren eta gizakiaren artean dagoen antzekotasun sakonaz kontzientzia hartuko dugu.

Bitartean, animalia-zaindariak izango dira animaliek itzaropena edo etsipena dutela ulertaraziko digutenak; bakardadea eta amodioarekin loturiko sentimendu sakonak eta baita nostalgiarekin loturiko sentimenduak ere dituztela haiek azalduko digute, animaliak gure ondoan ditugun sentimenduen “ontziak” direla behin-betiko geuregana dezagun eta animalien “gizatasunaz” jabe gaitzen.

ANIMALIEN PORTAERA

Animalien portaera emozionala aztertzen denean, harritu egiten gara. Non kokatu emozionalki “maskotatzat” sagu bat duen elefante baten gogoa? Nolako barne-mundua izan dezake bere kumetxoa hilda ekartzen diotenean izugarri minduta sentitzen den txinpantze batek? Nola uler dezakegu, ilunabarrean, Eguzkia ezkututzen denean, astroari begira gogoa bahituta geratzen den hartza?

Zer esan dezakegu izotz gainean irristaka ibiltzeaz gozatzen duten bufaloei buruz? Nola liteke loroen arteko elkarrizketa batean, bietako bat biziki haserretzea bere solaskidea bera engainatzen saiatzen ari dela konturatzean? Eta, azken adibide gisa, ez al da mirestekoa izurdeek jolas kolektiboak antolatzea, komunitatearekin partekatzeo asmoz?

Aurreko guztiak eragina izan beharko luke animalia horiek tratatzeko dugun moduan eta haiekin dugun jokabidean. Izan ere, nola onar dezakegu animalia horiekin egiten diren bibisekzio-esperimentuak, tortura hutsa direla jakin ondoren?

ANIMALIA GATIBUTIK GIZAKI KARTZELATURA

Gizakiok, animaliek bezala, egoera antinaturala bizitzen dugu. Gure eboluzioa ez zen gertatu gaur egun bizi dugun ingurumen berebanean (ikasgela batean eserita, ordularien mende, etab...). Hala eta guztiz, ditugun emozioak onartu egiten ditugu, benetakotat jotzen ditugu, egiazkotzat hartzen ditugu, nahiz ez diren afrikar sabanako talde biltzaile-ehiztarien artean gertatzen, non, uste denez, giza bizitza hasi zen.

Gu geu ere animalia “etxekotuak” gara eta gure jatorrizko sorgunetik oso urrun bagara ere, gure emozioak errealak eta gure espezieko ikur direla esaten dugu. Zergatik ezin daiteke gauza bera gertatu animaliekin? Adibidez, gizakiak kartzelan egotea ez da batere egoera naturala. Alabaina, kartzelatzen bagaituzte, ohikoak ez diren emozio bereziak sentituko ditugu, normalean sentitzen ez ditugunak. Eta inork ez du haien existentzia zalantzan jarriko. Era berean, animalia bat gure etxean edo zoologikoan gatibu baldin badugu, sentimendu bereziak izango ditu, libre izanda inoiz izango ez lituzkeenak. Bada, emozio horiek errealak izango dira, eta, hortaz, ikertuak izatea mereziko lukete.

ZOOM IN

- Zenbat oinarrizko emozio daude animalien artean? Psikologo batzuek diotenez, 200 bat. Oinarrizko animalien emozio-zerrenda horretan maitasuna ez da agertzen. Harrigarria, ezta?
- Ba al zenekien biología ebolutiboaren arabera, animaliek sentitzen dutela eta emozioak lagungarri izan dakizkiekeela bizirik irauteko?
- Ikuspuntu ebolutibotik ikusita, garunaren “sistema linbikoa” (garunaren zatirik zaharrenetakoa) emozioen bitartekari izan daiteke. Narrasti-garuna ere deitzen zaio, narrastiek izan baitziren zati hori moldatu zuten lehenak. Hori guztia kontuan hartuta eta biologia ebolutiboaren aldetik azterturik, mirari bat izango litzateke gizakiak izatea sentitzeko gaitasuna duten animalia bakarrak.

- Gizakiok pentsamenduak hitzik gabe komunikatzeko gaitasuna dugula ez dago dudarik (keinuak, mimika, dantza,...). Keinuen mundu horretako animaliek egiten dituzte baieztapen ez-ahozkoak hizkuntzat hartu beharko genuke? Izan ere, kontuan izan behar dugu animaliek, askotan, guk baino hobeto ulertzen dituztela keinu horiek, baita beste espezieetakoena ere.